



Legazpiko Agenda 21eko Foroaren akta

2016ko irailaren 29an, 18:30etik 20:15oera,
Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan

1. Tailerraren helburua

Atzean geratu da uda eta Legazpiko Agenda 21eko Foroa berriro da martxan. Eta hasteko, **Legazpi Klima 2030** ekintza-plana lantzeko prozesua hartu du hizpide. Helburua argia da: **ekarpen berri bat egitea**, dagoeneko politikariek, teknikariek eta herritarrek eginda duten lana aberasteko.

Hasi aurretik koka gaitezen: prozesuaren zein puntutan gaude? Hauek ditugu:

- Legazpiren egungo diagnostikoa. Emaitzak xehetasun-fitxetan jaso dira eta udal web orrian daude ikusgai, bai agiria osorik (http://www.legazpi.eus/files/Agenda21/Klima2030/LegazpiKlima2030_Diagnostikoa_02.pdf) bai Irakurketa Errezaren bertsoian (http://www.legazpi.eus/files/Agenda21/Klima2030/LegazpiKlima2030_Irakurketa Erraza_02.pdf)
- 8 ildo estrategikoen proposamena, 2030. urterako nahi dugun Legazpi lortzeko.
- Eta ildo estrategiko bakoitzerako buru daitezkeen ekintzen multzoa. Ekintza horiek Udaleko politikariek eta teknikariek landu dira. Osatu eta aberastu daitezkeen hasierako proposamena da, ekintza-plan asmo handikoa, berritzailea eta zeharkakoa idazte aldera.

Ibilbide horretan, Legazpiko Agenda 21ek modu aktiboan hartu du parte. Horrela, apirilaren 21eko tailerrean diagnostikoa landu genuen eta 2030ean Legazpi nola irudikatzen dugun ekainaren 16an aztertu genuen.

Ildo horretatik, zein helburu ezarriko ditugu gaurko?



Gaur, ezarri diren 8 ildo estrategikoetarako ekintza asmo handikoak, berritzaileak eta zeharkakoak definitzerakoan Agenda 21eko Foroaren ekarpena bilatzen dugu.

Eta horretarako, tailer honetan 2 galdera egingo ditugu:

1. Zehaztutako 8 ildo estrategikoen aurrean, Legazpiko Alkatea izango bazina, 4 urteko epean zein 5 ekintza edo proiektu bultzatuko zenituzke bai ala bai?
2. 8 ildo estrategikoetatik, non uste duzu Legazpi erreferente izatera iritsi daitekeela?

Segidan ikus dezagun tailerra nola gauzatu den; eta ikus dezagun zertan zehazten den Foroak [Legazpi Klima 2030](#) plana egiteko prozesuari egiten dion ekarpen berria.

2. ¿Nortzuk?

Lanerako eta ekarpenak egiteko prest, Legazpiko **17 pertsona** bildu gara, herritarrak, arduradun politikoak, udal teknikariak eta laguntzaile teknikoak:

Manuel Fernandez (Nagusilan) – Floren Gutierrez – Montse Vallejo – Rosa Makibar – Pedro Agirre – Iñaki Mauleon (Domingo Agirre ikastetxea) – Mari Cruz Lizarazu – Eurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Pilar Makibar – Rafa Gomez - Eric Galvez (zinegotzia) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Alberto Bezunartea (zinegotzia) – Koldobike Olabide (alkatea) - Inma Hernandez (Industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria) – Leire, Haizea Ikerketa eta Factor CO₂ (Legazpik Klima 2030 plana egiteko Udalak kontratatu duen taldea) - Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea enpresakoak, tailerra dinamizatzeko eta errazteko lanetan.



Eskerrik asko talde! Zoragarria da zuekin lan egitea

3. Talde-lanaren emaitzak

Goazen harira.

- **Abiapuntua:** 8 ildo estrategiko, horiei ekintza zehatzak proposatzeko

Datozen 8 urtetan Legazpi hartuko duen norabidea markatzen duten ildo estrategikoen proposamena honako hau da (xehetasunerako ikusi eranskina):

1. Hiri-eremu abegikor eta lurralde anitz nahiz egokitzeko gaitasuna duena.
2. Energia aldetik udalerrri arduratsua eta eraginkorra, eta mugikortasun atsegina duena.
3. Udalerrri arduratsu eta eraginkorra baliabideen erabileran eta ingurune osasungarria eskaintzen duena.
4. Osasun ohitura onak dauzkaten eta aldaketara egokitzen diren herritarrak.
5. Aberastasuna, kalitatezko lana eta enplegu berdea sortzeko gorabidean dauden erronkak arobetzatzen dituen ekonomia.
6. Gizarte aldetik aktiboa den udalerrria, berdintasuna nahiz pertsonen, kulturen eta hizkuntzen arteko elkarbizitza babesten duena.
7. Parte hartzen duen herria eta teknologia berrietan oinarritutako gobernantza berriaren aurrean sentsibilizatua eta arduratsua.
8. Udal kudeaketa berritzailea eta zeharkakoa, gobernantza garden, fidagarri eta eraginkorrean oinarritzen dena.

- **Proposamenak:** “Legazpi Klima 2030” ekintza-planari gehitu ahal zaizkion ideiak eta ekintzak

“Legazpiko Alkatea izango bazina, **4 urteko epean zein 5 ekintza edo proiektu bultzatuko zenituzke bai ala bai?**” galderaren aurrean, Foroan parte hartu duten pertsonak ideiak eman dituzte eta horiek ildo estrategiko desberdinetan antolatu ditugu.

Irakurketa globala eginez, zehaztapen- eta irismen-maila desberdina duten proposamenak planteatu direla antzeman dugu; baina, era berean, guztiak dira baliagarriak Udaleko talde politiko-teknikoa dagoeneko lantzen ari den zerrendan sartzeko. Amaierako azterketa sakonak zehaztuko du [Legazpi Klima 2030](#) izeneko 8 urteko ekintza-plana osatuko duten ekintzen azkeneko edukia eta itxura.



Ideiak eta ekintzen proposamenak

1. ildo estrategikoa

Hiri-eremu abegikor eta lurralde anitz nahiz egokitzeko gaitasuna duena.

- **Herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziazioa biodibertsitatearen eta natura-ingurunearen arloan.**

Gure ingurunea eta gure dibertsitatea ezagutzeko, baloratzeko eta zaintzeko giltzarria da heziketa-lana. Ongi jakin behar dugu batetik zer dugun eta horrek zer ematen digun eta bestetik, zer ez dugun eta ez izate horrek zein ondorio dituen.

Ez da balio ekonomikoa bakarrik aintzat hartzea; aitzitik, premiazkoa da gure basoen, eremuen (Urtatza adibidez), flora eta faunaren,... aberastasun ukiezina agerian jartzea, pertsonak balora dezaten eta zainduta eta garbi mantentzen dezagun.

- **Basoaren kudeaketa jasangarrirako udal plana egitea** –Udalak dagoeneko aurreikusita duena-

Plan horren helburuak, besteen artean, hauek dira: basoak eta bertako espezieak berreskuratzea, zaintzea eta babestea; basoberritze iraunkorra sustatzea horren beharra duten eremuetan; kudeaketa publiko jasangarrirako sar daitezkeen lursail partikularrak erostea,....

Horrekin, orain dela 40 urte hasi zen baso-politika indartu eta jarraitu nahi da, bide desberdinak aktibatzen saiatu dena: baso-lur pribatuak erostea modu jasangarrirako kudeatzeko, jabe partikularrekin lan egitea eta haiei diru-laguntzak ematea jardunbide egokiak ezar ditzaten,...

Plana egiterakoan, arrakasta izan duten beste esperientziak aztertzea eta



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



haiengatik ikastea komeni da: Oiartzun, Frantziako eremu batzuetan,... Bestalde, ezinbestekoa da ekimen horren berri eta egindako ahalegina herritarrei jakinaraztea.

- **Landare inbaditzaileak kontrolatzeko eta errotik kentzeko udal ekimena mantentzea.**

Herritarrei ere adierazi behar zaie egindako ahalegina, haiiek ere euren ingurunean, lursailetan,... zaintza- eta kontrol-lana egin dezaten.

- **Hiri-antolamenduko Plan Orokorra berrikusiko den hurrengoan hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeko aukerak aztertzea eta horren gaineko debatea irekitzea.**

Helburu konplexua eta, edozelan ere, herritarren adostasuna beharko duena, ondorio sozioekonomikoak izango dituelako.

- **Udal eskumeneko hirigintzako garapenetan –berrietan edo birgaitzeetan– arkitektura bioklimatikoak sustatzea.**

- **Auzoen urbanizazio integrala lortzeko planak egitea eta garatzea.**

Erabateko irisgarritasuna, eraginkortasun energetikoa, segurtasuna,... lortzea ahalbidetuko dutenak, ondare-balio handia dutelako interesgarriak diren auzoetan, hala nola, San Martin edo San Ignazio –dagoeneko eginda dago aurre-diagnostikoa–.

- **Hutsik dauden industria-pabilioien erabileraren gainean azterketa bat egitea.**

- **Bukatu gabeko hirigintzako garapenen egoeraren azterketa egitea eta gaiari heltzea.**

Paper-fabrikako eremuko eta Olazabaleko etxebizitzaren kasu zehatzak adibidez.

2. ildo estrategikoa

Energia aldetik udalerrir arduratsua eta eraginkorra, eta mugikortasun atsegina duena.

- **Legazpiko energia potentzial berriztagarriari buruzko azterketa egitea.**

Urtean horren gaineko proiektu bat egiteko konpromisoa hartuz. Adibidez: ekipamendu publikoetan eguzki-energia aprobetxatzeko instalazioren bat jartzea edo epe zehatz batean ekipamendu publikoetako berogailu-sistemak biomasarekin ibil daitezela.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- **“Ekoauzoak” sustatzea: auzoetan energia berritzeko proiektuak.**
- **Mugikortasun Iraunkorrerako plan berria egitea, joan-etorri ez motordunak –oinez edo bizikletaz– erraztuko dituen, garraio publikoaren erabilera sustatuko duena eta autoei oztupoak jarriko dizkiena.**

Hauek dira aztergaiak: Legazpiko garraio publikoaren zerbitzua zabaltzea, udalerriko eta ingurunearekin lotura izango duen barne-mugikortasuna modu berezian planifikatzea,...

- **Legazpiko bidegorria garatzea.**
Honakoak gehituz: bizikletak aparkatzeko gune estaliak jartzea eta prestakuntza-ikastaroak eskaintzea –bizikletan ibiltzeko ikastaroa 50 urtetik gorakoei zuzendua,....–.
- **Udalerrian joan-etorriak oinez egitea sustatzea: “oinez ibiltzea osasungarria da”.**
Udalerria ez da handia eta gehienek erraz egin ditzakete joan-etorriak oinez; gainera, kaleetatik oinez ibiltzeak herritarren arteko harremanak sustatzen ditu eta bizitza ematen dio espazio publikoari.
- **Ibilgailu eta bizikleta elektrikoek erosteko eta erabilera sustatzea.**
Honelako ekimenak aztertuz:
 - Horrelako ibilgailuen zirkulazioaren gaineko udal zergan beherapenak eskainiz edo erosteko diru-laguntza zuzenak emanez.
 - Udalerrian fotolinera jartzea.
 - Eskualdean ibilgailu eta bizikleta elektrikoak alokatzeko zerbitzua martxan jartzea.

3. ildo estrategikoa

Udalerri arduratsu eta eraginkorra baliabideen erabileran eta ingurune osasungarria eskaintzen duena.

- **Hiri-hondakinei dagokienez, murriztearen eta berrerabiltzearen aldeko apustua egitea.**
Ekimen zehatzak aztertuz eta bultzatuz:
 - Ontziak itzultzeko sistemak.
 - Bigarren eskuko dendak.
 - Ontziak eta bilgarriak murrizteko azalera handiko lan-prozesuak.
 - Birziklatzera eta hondakinen balorazioa egitera dedikatuko diren enpresa berriak sortzea.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



4. ildo estrategikoa

Osasun ohitura onak dauzkaten eta aldaketara egokitzen diren herritarrak.

- **Legazpi Lagunkoia.**

Legazpi adineko pertsonekin –eta herritarrekin oro har– lagunkoia den udalerrria izatea ahalbidetuko duten ekintzak planifikatzea eta garatzea. Plan hori martxan dago.

- **Meazti etxeko babespeko etxebizitzaren kopurua handitzea.**

5. ildo estrategikoa

Aberastasuna, kalitatezko lana eta enplegu berdea sortzeko gorabidean dauden erronkak aprobeztatzen dituen ekonomia.

- **Udalerriko enpresa txiki eta ertainetan prestakuntza eta berrikuntza sustatuko duen behatoki iraunkorra sortzea.**

Hauxe izango litzateke behatokiaren helburua: Legazpiko eta eskualdeko enpresa txiki eta ertainetan berrikuntzarako aukeren eta prestakuntzaren beharrak identifikatzea, estrategiak eta lanabes lagungarriak eskaini ahal izateko.

Ekintza hau eskualdean garatzeko modukoa izan daiteke.

6. ildo estrategikoa

Gizarte aldetik aktiboa den udalerrria, berdintasuna nahiz pertsonen, kulturen eta hizkuntzen arteko elkarbizitza babesten duena.

7. ildo estrategikoa

Parte hartzen duen herria eta teknologia berrietan oinarritutako gobernantza berriaren aurrean sentsibilizatua eta arduratsua.

- **Legazpi herri hezitzailea.**

Estrategia hezitzailea planifikatzea eta garatzea. Estrategia horrek ekintza zehatzak izango ditu eta legazpiarren artean kontzientzia jasangarria sortzea izango du helburu.

Adibidez: Legazpiko ikastetxeetan Eskola Agenda 21 programarekin jasotzen ari den informazioa eta ezagutza –ur-kontsumoen datuak eta beste datu asko– herritarrak sentsibilizatzeko erabil daiteke.

8. ildo estrategikoa

Udal kudeaketa berritzailea eta zeharkakoa, gobernantza garden, fidagarri eta eraginkorrean oinarritzen dena.

- **Legazpin iraunkortasuna lortzeko hartutako konpromisoa eta kudeaketa herritarrei jakinaraztea.**

Bai herritarrei bai herritik kanpokoei. Garrantzitsua da Legazpik iraunkortasunaren alde egin duen apustua eta norabide horretan egin duen ibilbidea agerian jartzea eta balioestea.

Lan bikaina! Ideia horiek baliagarriak izango dira behin betiko ekintza-plana egiteko eta aberasteko, seguru!.

Hurrengo urratsa emateko honako galdera egin dugu:

- **Azkeneko galdera:** 8 ildo estrategikoetatik, non uste duzu Legazpi eredu izan daitekeela?

Pentsatzeko denbora hartuz, foroan parte hartu duen pertsona bakoitza aukeratutako ildoaren parean jarri da.

Hauxe izan da emaitza:



Legazpi eredu izan daiteke honako ildo estrategikoa.....

- 1= 2 pertsona
- 2= 3 pertsona
- 3= 0 pertsona
- 4= 2 pertsona
- 5= 2 pertsona
- 6= 2 pertsona
- 7= 3 pertsona
- 8= 0 pertsona

Hausnarketa: azkeneko irudia **ekintza-planaren beraren zeharkakotasunaren**, gai guztien arteko erlazioaren eta horietan ikuspegi globala erabiliz aurrera egin behar diren isla izan daiteke.

4. Eta bukatzeko, kontuan hartu beharreko 4 ohar

Datozen egunetarako hitzordu eta ohar garrantzitsuak:



- **Irailaren 30ean**, "Denontzako kaleak. Oinezko eta txirrindulariei zuzendutako hobetze-jarduketa berritzaileak edota kostu txikikoak egiteko gida" eskuliburuaren aurkezpena.

Legazpiko Udalak eta Ihobek antolatuta, bihar jardunaldi teknikoak egingo dira Legazpin eta bertan Euskadiko 50 udal teknikari baino gehiago elkartuko dira.

- **Urriaren 4an, Agenda 21eko Foroaren tailer berria.**

Ohiko orduan eta lekuan, gai bakarra aztertuko da bertan: Latxartegin aparkalekua eraikitzeko proiektua.

- **Herritarrek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte parte hartze bidez egingo diren aurrekontuak osatzeko. Azken eguna: urriaren 6a.**

Informazio gehiago eta bete behar den inprimakia helbide honetan: <http://www.legazpi.eus/es/component/k2/item/2130-presupuestos-participativos>

- **Urriaren 25ean, klima aldaketa izango dugu hizpide kultur etxean egingo den hitzaldian.**

17:00etatik 18:30era izango da hitzaldia eta Klima aldaketaren Euskal Bulegoko ikerketa-taldeko kideak izango dira hizlariak. Berez, eskualdeko ikastetxeei zuzendutako hitzaldia da baina Foroko kideren bat joateko interesa baldin badu, lasai asko joan daiteke.

5. Eskerrik asko!

Eskerrik asko espazio hau aberasten jarraitzen duzuelako eta 5 egun barru ikusiko dugu elkar!



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eranskina

Legazpi Klima 2030: proposatutako 8 ildo estrategikoa

1. ildo estrategikoa

Hiri-eremu abegikor eta lurralde anitz nahiz egokitzeko gaitasuna duena.

Iraunkortasun-irizpideak sartuko dira hiri- eta lurralde-antolaketan eta baita plangintzan ere, egokitzeko gaitasun handiagoa izango duen udalerria lortzeko. Modu berean, biodibertsitatea zaintzea sustatuko da klima-aldaketa bezalako ingurumen-arriskuei aurre egiteko.

2. ildo estrategikoa

Energia aldetik udalerrri arduratsua eta eraginkorra, eta mugikortasun atsegina duena.

Instalazioen kalitate energetikoa hobetzeko ekintzak proposatuko dira, kontsumoak eta erregai fosilekiko mendekotasuna murriztuz eta, ondorioz, energiaren kontsumoarekin lotutako eraginak murriztuz. Modu berean, hiri-mugikortasuna hobetuko da baita udalerrriko irisgarritasuna ere, horretarako azken teknologiak erabiliko dira garraioak ingurunean eta kliman duen inpaktua murrizteko.

3. ildo estrategikoa

Udalerrri arduratsu eta eraginkorra baliabideen erabileran eta ingurune osasungarria eskaintzen duena.

Honako neurriak proposatzen dira: ur kontsumoa murriztea eta uraren kudeaketa, hondakinen kudeaketa, airearen kalitatea, luraren kalitatea eta bere kudeaketa hobetzea eta zarata murriztea.

4. ildo estrategikoa

Osasun ohitura onak dauzkaten eta aldaketara egokitzen diren herritarrak.

Egungo politikak biztanleriaren etorkizuneko egiturara egokitzea sustatzeko estrategiak proposatuko dira, herritarrak etorkizuneko egoera berrietara egoki daitezen lagungarriak izango diren ekintzak sustatuz. Modu berean, pertsonen ongizatea sustatuko da.

5. ildo estrategikoa

Aberastasuna, kalitatezko lana eta enplegu berdea sortzeko gorabidean dauden erronkak aprobetxatzen dituen ekonomia.

Garapen ekonomikoarekin eta lan-merkatuarekin zerikusia duten ekintzak sartuko dira: enplegua eta prestakuntza.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



6. ildo estrategikoa

Gizarte aldetik aktiboa den udalerrria, berdintasuna nahiz pertsonen, kulturen eta hizkuntzen arteko elkarbizitza babesten duena.

Ekintza desberdinak proposatuko dira arlo desberdinetan: hezkuntza, euskara, kultura, berdintasuna eta elkarbizitza. Horretarako, udalerrira datozen herritar berrien profilak eskaintzen dituen aukerak integratuko dira.

7. ildoa estrategikoa

Parte hartzen duen herria eta teknologia berrietan oinarritutako gobernantza berriaren aurrean sentsibilizatua eta arduratsua.

Ekintza desberdinak sartuko dira honakoak sustatzeko: herritarren parte hartzea, udalerriko elkarten sarea, komunikazioa eta herritarren sentsibilizazioa.

8. ildo estrategikoa

Udal kudeaketa berritzailea eta zeharkakoa, gobernantza garden, fidagarri eta eraginkorrean oinarritzen dena.

Ildo honetan udal zerbitzuen kudeaketarekin zerikusia duten gaiak aztertuko dira: erosketa publiko berdea, udal administrazioaren ingurumen-kudeaketa, barne-koordinazioa, Agenda 21aren eta elkarlaneko gobernantzaren kudeaketa.